

Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua

Ikasturtea: 2014/2015

Tituluaren gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

Oinarrizko dimentsioa: **hitzezko komunikazioa**

Ikasketa Planean adierazitakoa: Ahoz ongi (eraginkortasunez) komunikatzeko, transmititzeko eta harremanetan jartzeko gai izatea, tituluari dagokion hizkuntza teknikoa erabilia.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

1. maila: Hitzeko komunikazioko gaitasun orokorraren ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA

Ideiak modu egituratuan eta ulergarrian adieraztea, modu nabarmenean eta egokian parte hartuz ahozko harremanetan, baita egoera formalago eta egituratuagoetan ere.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK
Hitzeko harremanetan parte hartzen du	Haren ekarpen ekintzaileak eta egokiak nabarmentzen dira
Informazio garrantzitsua transmititzen du	Haren argitasuna nabarmentzen da, arrazoibideak komunikatzean
Behar bezala kontrolatzen du urduritasuna, jendaurrean hitz egitean	Naturaltasunez adierazten da, hizkuntza ongi menderatuta
Aurkezpenak egituratzen ditu, eskatutako eskakizunak beteta	Oso komunikazio antolatua eta eraginkorra egiten du
Aurkezpenetan laguntza bitartekoak erabiltzen ditu	Laguntza bitartekoak erabilia, aurkezpenaren ildo nagusiak azpimarratzen ditu
Egiten dizkioten galderei erantzuteko gai da	Erraztasunez eta zuzen erantzuten du

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIK

Konstituzio Zuzenbidea, Zuzenbide Zibila, Sozietateen Zuzenbidea, Lan Zuzenbidea eta Lan Arloko Psikologia.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harreman U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

4. ZEREGINAK

- Ikasketen gaiari buruzko liburuen, artikuluen eta/edo bideoen gaineko ahozko aurkezpenak egitea, bakarka eta taldean, bai mintegi formatuan bai ikasgelako talde osoaren aurrean.

5. EBALUAZIO SISTEMA

Konstituzio Zuzenbidea (gaitasuna koordinatzen duena) Zuzenbide Zibila, Sozietateen Zuzenbidea, Lan Zuzenbidea eta Lan Arloko Psikologia irakasgaiak jasota dute gaitasun hau beren ebaluazio protokoloetan, eta ikasleak ebaluatzeko erabiltzen dute.

Konstituzio Zuzenbidea:

Gaitasun orokorraren adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera emandako ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna ikasleek egindako zereginen bidez ebaluatzen da. Ikasleak lau taldetan biltzen dira, eta irakaslearekin batera mintegietan parte hartzen dute, non, bakarka, beren iritziak azaltzen dituzten eta aldez aurretik "zinema eta zuzenbidea"ri buruz ikusitako bideoez irakasleak eginiko galderei erantzuten dizkieten.

Gaitasunaren ebaluazioa irakasgaiaren ebaluazio jarraituari emandako notaren % 16 da.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Zuzenbide Zibila:

Gaitasun orokorraren adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera emandako ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna ebaluatzeko, ikasleei gaien zerrenda bat ematen zaie –gaiak ez errepikatzeari begira–, eta, hiru ikasleko taldeek hautatutako gaiari buruzko ahozko aurkezpen bat egin behar dute, ikasgelako kideen aurrean.

Gaitasunaren ebaluazioa irakasgaiaren ebaluazio jarraituari emandako notaren % 10 da.

Sozietateen Zuzenbidea:

Gaitasun orokorraren adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera emandako ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna ebaluatzeko, testuinguru sozioekonomiko edo problema berri bat aurkezten zaie lan taldeei, ebatz dezaten; jardun gidan oinarrituta, taldeak informazio juridiko-ekonomikoa bilatzen du, hainbat iturritan, problema ebazteko; gutxienez eztabaida bat antolatzen da ikasgelan lan talde bakoitzeko, problema ebazpenean adostasunera heltzeko; eta problemaren bateratze lana egiten da, eta ahozko azalpena taldeko ideien bozeramailearen bitartez.

Gaitasunaren ebaluazioa notaren % 10 da, eta adierazle bakoitzari 1.5 puntuko balioa ematen zaio, 2.5 puntuko balioa duen laugarrenari izan ezik.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Arloko Psikologia:

Gaitasun orokorraren adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera emandako ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna ebaluatzeko, ahozko aurkezpenak egiten dira ikasgelan, bakarka edo talde txikitan (gehienez 3), lehendik lan arloko psikologiari buruz idatzitako lanei buruz.

Gaitasunaren ebaluazioa irakasgaiaren ebaluazio jarraituari emandako notaren % 15 da.

Lan Zuzenbidea irakasgaiaren diseinua nahita egina dago gaitasun hau garatzeko, edo aukerak sortzen ditu ikasleek gaitasuna praktikan jartzeko.

Irakasgaia gainditzeak adierazten du ikasleek gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Hala eta guztiz ere, litekeena da ikasleek irakasgaia gainditzea komunikazio idatziari dagokionez gaitasunaren menderatze maila lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta,



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.

2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiako arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.
3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

2. maila: Hitzeko komunikazioko gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA

Taldean, hitza erraz hartzea: uste osoz eta segurtasunez transmititzea, eta diskurtsoa eskakizun formaletara egokitzea.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK
Aurkezpen interesgarriak eta konbentzigarriak egiten ditu	Haren konbentzitzeko gaitasuna nabarmentzen da
Boluntario gisa aurkezten da, jendaurrean aurkezpenak egiteko	Borondatez egiten dituen ekarpenek balioa eransten diote prozesuari, une nagusietan
Ez-hitzezko hizkuntzaz osatzen du hitzezko diskurtsoa	Haren ez-hitzezko hizkuntza naturala eta egokia da entzuleentzat
Haren aurkezpenak behar bezala prestatuta daude	Aurkezpena eta haren egitura koherenteak dira, entzuleria motarekiko
Bere ideiak ikusarazten ditu laguntza bitartekoen bidez	Bitartekoak lagungarriak dira, entzuleek edukiak barnera ditzaten

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIK

Enpresen Kudeaketa I: Enpresen Ekonomia (gaitasuna koordinatzeko arduraduna); Gizarte Ikerketako Teknika Kuantitatiboak, eta Gizarte Ikerketarako Teknika Kualitatiboak.

Kalifikatu ez arren, gaitasuna garatzeko lagungarriak diren beste irakasgai batzuk: Kontabilitaterako Sarrera, Finantza Kontabilitatea, Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea I, eta Sindikatu Zuzenbidea.



Lan Harreman U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

4. ZEREGINAK

Gaiei, artikuluei, kasu praktikoei eta/edo galdetegiari buruzko ahozko aurkezpenak egitea, bakarka eta taldean.

5. EBALUAZIO SISTEMA

Enpresen Kudeaketa I (gaitasuna koordinatzen duena) eta Gizarte Ikerketarako Teknika Kualitatiboak, eta Gizarte Ikerketarako Teknika Kuantitatiboak irakasgaiek gaitasuna jasota dute beren ebaluazio protokoloetan, eta ikasleak ebaluatzeko erabiltzen da.

Enpresen Kudeaketa I: Enpresa Ekonomia:

Adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera emandako ebaluazio sistema baten bidez. Gaitasuna ebaluatzeko, kasu praktikoak aztertzen eta aurkezten dira, eta gai bat lantzen eta aurkezten da. Gaitasunaren ebaluazioa irakasgaiaren notaren % 30 da.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Gizarte Ikerketarako Teknika Kualitatiboak, eta Gizarte Ikerketarako Teknika Kuantitatiboak.

Adierazle guztiak ebaluatzen dira bi irakasgaietan, eta ebaluazio sistema ikasturtearen hasieran ematen da ezagutzera. Gaitasuna ebaluatzeko, ikasgelan praktikak defendatu, eta parte hartu behar da. Adierazleen pisua proportzionala da gaitasuna ebaluatzean, eta gaitasunaren balorazioa % 20 da, irakasgaiaren azken notan.

Kontabilitaterako Sarrera, Finantza Kontabilitatea, Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea I, eta Sindikatu Zuzenbidea irakasgaien diseinua nahita egina dago gaitasun hau garatzeko, edo aukerak sortzen ditu ikasleek gaitasuna praktikan jartzeko.

Enpresen Kudeaketa I: Enpresa Ekonomia, Gizarte Ikerketarako Teknika Kualitatiboak, eta Gizarte Ikerketarako Teknika Kuantitatiboak irakasgaiak gaitasunak adierazten du ikasleek gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gaitasun dutela.

Nolanahi ere, gerta daiteke ikasleak irakasgaia gaitasunak gaitasunak, komunikazio idatziari dagokionez menderatze maila lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduoko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitze tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboaz argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.



Lan Harreman U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.

3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harreman U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

3. maila: Hitzeko komunikazioko gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA

Erraztasuna izatea entzuleak konbentzitzeko eta haien atxikipena lortzeko, mezua eta erabilitako bitartekoak entzuleen ezaugarrietara egokituta.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK
Hitzeko eta ez-hitzeko hizkuntza egokia erabiltzen du	Haren ez-hitzeko hizkuntza neutrala da, seriotasuna transmititzen du, eta egokia da entzuleentzat
Haren aurkezpenak behar bezala prestatuta daude	Aurkezpena eta haren egitura koherenteak dira, entzuleria motarekiko
Ideiak ilustratzeko, adibideak, analogiak, metaforak eta beste laguntza bitarteko batzuk erabiltzen ditu	Baliabideak lagungarriak dira, entzuleek beren ideiak zalantzan jar ditzaten.
Entzuleen parte hartzea sustatzen du, eta galdera eraikitzaileak egiten ditu, solasaldia lortzeko.	Solasaldiak sortzen ditu entzuleekin
Mezuaren forma taldera eta egoeretara egokitzen du	Argudioak sormenez egokitzen ditu, entzuleengan hautemandako jarreraren arabera



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIK

Lan Ekonomia (gaitasuna koordinatzeko arduraduna); Enpresen Kudeaketa II: Antolakuntza eta Metodoak; Lan eta Gizarte Politikak; Zuzenbide Prozesala; Laneko Osasuna eta Prebentzioa; Gizarte Segurantzza II; Lan Harremanen Teoria eta Egitura.

4. ZEREGINAK

Gaiei, artikuluei, kasu praktikoei eta/edo galdetegiei buruzko ahozko aurkezpenak egitea, bakarka eta taldean.

5. EBALUAZIO SISTEMA

Lan Ekonomia, eta Enpresen Kudeaketa II: Antolakuntza eta Metodoak irakasgaiak gaitasunaren ebaluazio sistema aplikatzen dute. Haien ebaluazio protokoloan jasota dago, eta ikasleak ebaluatzeke erabiltzen da.

Lan Ekonomia:

Lan Ekonomia irakasgaiak gaitasunaren adierazleak ebaluatzen ditu, ikasturte hasieran moodlen argitaratutako ebaluazio irizpideak oinarri hartuta. Ebaluatzeke, aurretik banatutako testuen bakarkako aurkezpen bat egiten da, 15 minutukoa, eta haren balioa irakasgaiaren kalifikazio globalaren % 60 da.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Enpresen Kudeaketa II: Antolakuntza eta Metodoak

Gaitasunaren adierazleak ebaluatzen ditu, ikasturte hasieran moodlen argitaratutako zeregin bakoitzaren ebaluazio irizpideak oinarri hartuta. Ebaluazioan, aintzat hartzen dira zereginen ahozko adierazpena eta euskarri birtuala. Zereginak dira, alde batetik, gai bat prestatzea eta defendatzea (2 puntu, amaierako notan), eta, bestetik, 6 kasu praktiko ebaztea eta defendatzea (3 puntu, amaierako notan).

Gizarte Segurantzza II:

Gaitasun orokorraren 2. eta 4. adierazleak ebaluatzen ditu (ongi prestatutako aurkezpenak eta partaidetzaren sustapena), ikasturtearen hasieran ezagutzera emandako ebaluazio sistema baten bidez. Gaitasuna ikasturte hasieran proposatutako gai baten ahozko aurkezpenaren bidez ebaluatzen da.

Gaitasunaren bi adierazleen ebaluazioa % 20 da, irakasgaiaren ebaluazio jarraituari emandako notaren gainean (kalifikazio osoaren % 20).

Lan eta Gizarte Politikak, Laneko Osasuna eta Prebentzioa, Laneko Harremanen Teoria, eta Egitura eta Zuzenbide Prozesala irakasgaien diseinua nahita egina dago gaitasun hau garatzeko, edo aukerak sortzen ditu ikasleek gaitasuna praktikan jartzeko.

Irakasgai horiek gainditzeak adierazten du ikasleek gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Nolanahi ere, gerta daiteke ikasleek irakasgaia gainditzea, komunikazio idatziari dagokionez menderatze maila lortu gabe.



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiako arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.
3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

4. maila: Ahozko komunikazioko gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA

Taldean hitza hartzea, egoera mendean hartuta: uste osoz eta segurtasunez transmititzea, eta diskurtsoa eta erabilitako bitartekoak eskakizun formaletara eta entzuleen egoerara egokitzea.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK
Aurkezpena proposatutako gaiari egokitzen zaio	Aurkezpena ongi egokitzen zaie proposatutako gaiari eta emandako argibideei
Ez-hitzezko hizkuntzak hitzezko adierazpena osatzen du	Aurkezpenak erraztasunez, ahots goran eta argi hitz eginez egiten ditu, eta keinuz, jarrerez eta begiradaz laguntzen da
Edukiak transmititzen ditu, entzuleei egokituta	Aurkezpenetan ez ditu materialak irakurtzen, eta ideia nagusiak modu koherentean transmititzen ditu, entzule motaren arabera
Laguntzarako bitarteko teknikoren bat erabiltzen du, ideiak ikusarazteko	Aurkezpena osatzeko, bitarteko egokiak erabiltzen ditu, eta lortzen du azalpenaren ideia nagusiak azpimarratzea, entzuleei egokituta
Entzuleen partaidetza sustatzen du	Entzuleei galderak egiten dizkie, elkarrizketa lortzeko, eta zuzen eta erraztasunez erantzuten dizkie egindako galderari



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK.

Finantza Egoeren Analisia (gaitasuna koordinatzen duena)

- Enplegurako Politika Aktiboak
- Komunikazioa Euskaraz: Ekonomia, Enpresa eta Lan Harremanak
- Euskararen Arauak eta Erabilerak

4. ZEREGINAK

Finantza Egoeren Analisia, eta Enplegurako Politika Aktiboak irakasgaietan, taldean egindako lan bat aurkeztu behar da, taldearen aurrean. Lehenengo irakasgaietan, enpresa erreal baten urteko kontuen finantza eta ekonomia azterketari buruzko txosten bat egin behar da, eta bigarrean, talde bakoitzak lurralde bateko (udalerrria edo eskualdea) enplegurako politika aktiboak aztertzen eta deskribatzen ditu.

Komunikazioa Euskaraz: Ekonomia, Enpresa eta Lan Harremanak irakasgaiaren zereginak hauek dira:

- a) Komunikazio eraginkorrari buruzko taldeko edo banakako lan baten ahozko aurkezpena egitea.
- b) Lege testu bati buruzko taldeko edo banakako lan baten ahozko aurkezpena egitea.
- c) Lege testu baten terminologiari buruzko taldeko edo banakako lan baten ahozko aurkezpena egitea [AUKERAKOA].



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Euskararen Arauak eta Erabilerak irakasgaian, IVAPeko Estilo Liburuari buruzko taldeko edo banakako lan baten ahozko aurkezpena ebaluatzen da.

5. EBALUAZIO SISTEMA

Finantza Egoeren Analisia, Enplegurako Politika Aktiboak, Komunikazioa Euskaraz: Ekonomia eta Enpresa, eta Lan Harremanak, Euskararen Arauak eta Erabilerak irakasgaiek gaitasunaren ebaluazio sistema aplikatzen dute. Gaitasun honen ebaluazioa beren ebaluazio protokoloetan jasota dago, eta ikasleak ebaluatzeko erabiltzen da. Biek argitaratzen dute ebaluazio sistema ikasturtearen hasieran.

Finantza Ikasketen Analisia

Ebaluazioan, ikasturtearen hasieran argitaratutako adierazle guztiak erabiltzen ditu. Enpresa erreal baten urteko kontuen ekonomia eta finantza analisiari buruz taldean egindako txosten baten ganean ikasle bakoitzak egindako ahozko aurkezpena ebaluatzen du. Adierazle bakoitzari gaitasuna ebaluatzeko notaren % 20 ematen zaio, eta gaitasunaren ebaluazioaren pisua % 30 da, azken notan.

Enplegurako Politika Aktiboak

Ikasturtearen hasieran argitaratutako ebaluazio sisteman, aintzat hartzen dira 1., 2., 3. eta 4. adierazleak. Taldean egindako lan baten aurkezpena ebaluatzen da. Taldeko lan horretan, lurralde bateko (udalerrri edo eskualde bat) enplegurako politika



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea aktiboak deskribatu eta aztertuko dira. Adierazle bakoitzari % 5 ematen zaio, gaitasuna ebaluatzeko notaren gainean, eta gaitasunaren ebaluazioaren pisua irakasgaiaren notaren % 20 da.

Komunikazioa Euskaraz: Ekonomia, Enpresa eta Lan Harremanak

Irakasgai honetan 2. atalean deskribatutako adierazle guztiak ebaluatzen dira.

Gaitasuna ebaluatzeko sistema ikasturteko lehengo eskolan ematen da ezagutzera, eta irakasgaiaren ebaluazio sistema orokorraren parte gisa deskribatzen da, irakasgaiaren ikasketen gidaliburuan.

Gaitasuna 4. atalean aipatutako zereginen bidez ebaluatzen da, hots: komunikazio eraginkorrari buruzko banakako edo taldeko lan baten ahozko aurkezpena, lege testu bati buruzko banako edo taldeko lan baten ahozko aurkezpena, eta lege testu baten terminologiari buruzko banakako edo taldeko lan baten ahozko aurkezpena [HAUTAZKOA].

Irakasgaiaren ebaluazioan, zeregin horiei ehuneko hauek esleitzen zaizkie*:

	Irakasgaiaren ehuneko osoa
a) Komunikazio eraginkorrari buruzko taldeko edo banakako lan bat egitea	% 15 (lana) % 7,5 ahozko aurkezpena
b) Lege testu bati buruzko banakako edo taldeko lan bat egitea	% 15 (lana) % 7,5 ahozko aurkezpena
c) Lege testu baten terminologiari buruzko banakako edo taldeko lan bat egitea (AUKERAKOA)	% 25 (lana) % 12,5 ahozko aurkezpena
GUZTIRA	% 55 (lanak) % 22,5 ahozko aurkezpenak



Lan Harreman U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

***OHARRA:** ahozko aurkezpena lan bakoitzaren balorazioaren % 50 da.

Gaitasun honen ebaluazioaren pisua irakasgaiaren azken notaren % 27,5 da.

Euskararen Arauak eta Erabilerak

Irakasgai honetan, 2. atalean deskribatutako adierazle guztiak ebaluatzen dira.

Gaitasuna ebaluatzeko sistema ikasturteko lehengo eskolan ematen da ezagutzera, eta irakasgaiaren ebaluazio sistema orokorraren parte gisa deskribatzen da irakasgaiaren ikasketen gidaliburuan.

Gaitasuna 4. atalean aipatu diren zereginen bidez ebaluatzen da, hots:

- a) IVAPeko Estilo Liburuari buruzko banakako edo taldeko lan baten ahozko aurkezpena [AUKERAKOA]

Irakasgaiaren ebaluazioan, zeregin horiei ehuneko hauek esleitzen zaizkie*:

	Irakasgaiaren ehuneko osoa
a) IVAPeko Estilo Liburuari buruzko banakako edo taldeko lan bat egitea [AUKERAKOA]	% 25 (lana) % 12,5 ahozko aurkezpena
GUZTIRA	% 25 (lana) % 12,5 ahozko aurkezpena

***OHARRA:** ahozko aurkezpena lan bakoitzaren balorazioaren % 50 da.

Gaitasun honen ebaluazioaren pisua % 12,5 da, irakasgaiaren azken notaren gainean.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

Irakasgaia gainditzeak adierazten du ikasleek gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Hala eta guztiz ere, litekeena da ikasleek irakasgaia gainditzea komunikazio idatziari dagokionez gaitasunaren menderatze maila lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzekeo tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.
3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harreman U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Gradu Amaierako Lana 4. maila: Ahozko komunikazioko gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. 4. menderatze maila

Uste osoz eta segurtasunez transmititzea, entzuleak konbentzitzeko, eta mezua eta erabilitako bitartekoak egoeraren eta entzuleen ezaugarri formaletara egokitzea.

2. Ikaskuntza adierazleak eta emaitzak

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK
Hitzezko eta ez-hitzeko hizkuntza egokia erabiltzen du	Ahots tonua, keinuak eta gorputzaren mugimenduak bat datoz mezuarekin.
Haren aurkezpenak behar bezala prestatuta daude	Transmititu beharreko mezua ordenatuta dago: hasiera, garapena eta amaiera bereizten dira.
Ideiak ilustratzeko, adibideak, analogiak, metaforak eta beste laguntza bitarteko batzuk erabiltzen ditu	Emandako informazioa zuzena eta egokia izan da.
Mezuaren forma egokitzen du ezaugarri formaletara eta entzuleen ezaugarrietara	Terminologia propio eta zehatza erabiltzen du, eta ongi erantzun die epaimahaiko kideen galderari.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harreman U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK

Gradu Amaierako Lana

4. Zeregina

Gradu Amaierako Lana egitea.

Elkarrizketak egitea tutorearekin, txostena idazteko jarraipen prozesuan, eta aztergaiari dagokion terminologia zientifiko egokia ahoz adierazteko gai izatea.

5. Ebaluazio sistema:

Adierazleak GRALei buruzko arautegian ezarritako irizpideen arabera ebaluatzen dira. Irizpide horiek publikoak dira. GRALaren faseak edo zereginak honela haztatzen dira:

Tutoreak GRAL prozesua baloratzeko eginiko txantiloia: % 40

GRALaren azken memoriaren edukia eta forma: % 30

GRALaren aurkezpena epaimahaiaren aurrean: % 30